



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI BURUZKO ONLINE IKASTARORAKO DEIALDIA

Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak Emakumeen Aurkako Indarkeriari buruzko ikastaroa eskaintzen du, on-line modalitatean

Baldintzak:

1. Ikastaroa, bereziki, Euskadiko Justizia Administrazioiko karrerako eta bitarteko funtzionarioentzako zuzenduta dago, aktiboan daudenentzako.
2. Automatrikulatzeko epea argitaratzen denetik, **2025eko otsailaren 06ko goizeko 08:00etara arte** izango da. Hurrengo estekaren bitartez egingo da:
 - [Emakumeen Aurkako Indarkeria online izen ematea](#)

modu honen bidez aurkeztutako eskabideak bakarrik hartuko dira kontuan.
3. Ikastaroa, **20 orduko** iraupena duena, **otsailaren 18an hasiko da, 14:00etan, eta martxoaren 13an amaituko da, 08:00etan**. Epe horretan ikasleak online sar daitezke ikastarora. Hasierako egunean, posta elektronikoko bat bidaliko zaie ikastarorako onartu direnei. Erabiltzailea, pasahitza eta ikastaroan nola sartu adieraziko zaie posta horretan.
4. Ikastaroa moduluz osatuta dago. Modulu bakoitza amaitzeko, autoebaluazio-test bat egin behar da. Test horri esker, ikasleak zenbat aurreratu duen jakingo du, eta moduluak behar beste errepikatzeko aukera izango du, modulua behar den moduan ulertu eta ikasi arte.
5. Azterketa egiteko eskubidea izateko, ikasleak **ikastaroko test guztiak egin beharko ditu**.
6. Ikastaroa amaituta, **martxoaren 18tik (14:00etan) martxoaren 26ra (goizeko 8:00ak) bitartean**, ikastaroaren **azterketa (online)** egiteko epea irekiko da.